

Gipuzkoa

Buruntzaldea

Andoain

Hernani

Lasarte-Oria

# Sagarraren Jaia ospatuko da gaur Foru plazan, programazio oparoarekin

DV ASTIGARRAGA.

Domingo, 24 septiembre 2017, 09:45



Sagar Uztak hamazazpigarren edizioa beteko du aurten, eta urteroko moduan, sagardotegietako dolareetako lanen hasiera ospatuko du, azarora bitartean luzatuko den lana. Sagar Uzta jaiaren jarduera nagusiak egun hauetan ospatzen ari dira sagarraren eta sagardoaren kulturaren oinarrituriko jarduera ugariarekin.

Gaur, hain zuzen, Sagarraren Jaia izango da Foru enparantzan. Goizean, 9:30ean hasita, Musika Eskolako txistu ikasleen eta Txirriskla Txistulari Taldearen diana egongo da. Gainera, 10:30etik 12:00etara bitartean sagar postre lehiaketa burutuko da -frontoian entregatu behar dira postreak- eta ordutegi berean, X. Sagar Uzta Argazki Rally Digitala egingo da.

Goiz guztian zehar sagarraren azoka, erakusketa, dastaketa eta salmenta, sagardo eta muztio dastaketa, saski, txertaketa, etab.-en erakustaldiak, herriko baserritarren produktuen salmenta eta trikitilarien emanaldian, herrian zehar, izango dira. Gainera, 11:00etan, muztioaren elaborazioa egingo da eta 12:30ean, Sagar dantza eta kirikoketa. Eguna ondo bukatzeko, 13:00etan, txalaparta eta 2017 uztako lehen muztioaren topa

herrikoia.

## AEK

Bestalde, euskaraz ikasteko matrikulazio kanpainaren barruan, pasa den ikasturtean euskaltegian aritu ziren ikasle eta irakasleei ateratako argazkien erakusketa gaur amai-tzen da Ikatza, Zipotza, Ibai-Lur, Ekaitz, Txiki eta Sagartxo tabernetan. Astigarragako AEK euskaltegiak jarri zuen martxan hilaren hasieran eta, era horretan, «herritarrak animatu nahi dira euskara ikastera eta, aldi berean, euskaltegiko giro ezin hobea ezagutzera».

## Galtzaur

Galtzaurreko jubilatuek Elvillar de la Guardia bodegetara irteera antolatua dute urriaren 28rako. Joan nahi duenak, izena emateko zita datorren urrian izango du, 2, 3 eta 4ean, 9:30etatik 12:00etara, Galtzaurren bulegoan.

Recibe nuestras newsletters en tu email

**Apúntate**

## Lo + leído

[Top 50](#)

- 1** El gran día de la manzana en Foru Plaza
- 2** Un bosque surrealista y mágico
- 3** Bonito festival para la reapertura de la cafetería de la Manuel Lekuona K.E.
- 4** Concurrida degustación de productos extremeños
- 5** Curso de soldadura para desempleados en La Salle Berrozpe